| A- 33/10 | FA:0357 LI | 2019 |
|---|---|---|

**FORU AGINDUA**

Donostia/San Sebastián, 2019ko abenduaren 2a

Lorategi botanikoa Pagoetako parke naturaleko harrera eta interpretazio zentroaren ondoan kokatuta dago, lorategiari izena ematen dion Iturraran baserrian. Lorategiak 25 hektarea ditu, horietako 10 bertako landaretzaz osatua, eta une honetan 5.500 taxoneko bilduma bat dauka, gehienak munduko leku diferenteetako zuhaitzak eta zuhaixkak dira.

El Jardín Botánico de Iturraran se encuentra junto al Centro de Recepción e interpretación del Parque Natural de Pagoeta, en el caserío Iturraran, que da nombre al jardín. Tiene una superficie de 25 hectáreas, de ellas 10 hectáreas con vegetación autóctona, y en este momento cuenta con una colección de unos 5.500 taxones, la mayoría árboles y arbustos de diferentes lugares del mundo.

Iturrarango Lorategi Botanikoaren eta bertan gauzatzen diren jardueren mantentze lan egokia bermatzeko, enpresa espezializatu bat kontratatu behar da, lorategiko bilduma botanikoen kontserbazioan, espezie mehatxatuen zaintzan eta lorategiko balioen zabalkundean esperientzia eta ezagutza nahikoak dituena. Era berean, enpresa horrek Landare Berezien Azoka bezalako ekitaldiak antolatzeko gaitasuna izan beharko du.

Para garantizar el buen mantenimiento del Jardín Botánico de Iturraran y de las actividades que se desarrollan es necesaria la contratación, de una empresa especializada, con la suficiente experiencia y conocimiento en la conservación de las colecciones botánicas del Jardín, en las especies amenazadas y en la divulgación de los valores del Jardín. Es necesario, asimismo, que dicha empresa tenga la capacidad de organización de eventos como la Feria de Plantas de Colección.

Basa Animalien eta Landareen Zerbitzuak kontratazio hori arautuko duen baldintza teknikoen agiria idatzi du. Zerbitzu horren lizitazio aurrekontua 70.000,00 euro da (gehi %21 BEZ). Kontratua gauzatzeko epea, 2020ko abenduaren 31 arte da.

El Servicio Fauna y Flora Silvestre ha redactado el Pliego de Prescripciones Técnicas que regirán la contratación citada, cuyo presupuesto de licitación asciende al importe de 70.000,00 euros (más 21% IVA) y con plazo de ejecución hasta el 31 de diciembre del 2020.

Kontratuaren balio zenbatetsia ikusirik, bidezkotzat jotzen da haren kontratazioa prozedura ireki bidez egitea, hala aurreikusten baitu 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 156 artikuluan.

Dada la cuantía del valor estimado del contrato se considera procedente acudir al procedimiento abierto, conforme a lo previsto en el artículo 156 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del sector Público.

Egokia ikusten da lanak talde berak egitea, horregatik baztertu da sortaka banatzeko aukera.

Se considera que los trabajos deben realizarse por el mismo equipo por lo que no se estima su división por lotes.

Kontratazio espedientearen tramitazio administratiboa errazte aldera, eta espediente hori zerbitzuak emango diren urtearen aurreko aurrekontu ekitaldian hasiko denez, aldez aurretik izapidetuko da, horretarako bide ematen baitute 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 117.2 artikuluan, eta 2006ko abuztuaren 2ko 37/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren kargurako gastu espedienteak aldez aurretik izapidetzeari buruzkoak, 3. artikuluan.

A fin de agilizar la tramitación administrativa del expediente de contratación, y dado que el mismo se inicia en el ejercicio presupuestario inmediatamente anterior a aquél en que va a materializarse la prestación, el expediente de referencia va a ser objeto de tramitación anticipada, de acuerdo con lo previsto en el artículo 117.2 la Ley 9/2017 de Contratos del Sector Público y en el artículo 3 del Decreto Foral 37/2006, de 2 de agosto, sobre tramtitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipzukoa.

Bere aldetik, 2020 ekitaldirako, 84.700,00 euroko aurrekontu zuzkidura aurreikusten da, aurrekontuko 1.0250.510.227.99.01.2020.kontu sailean.

Hori guztia ikusita, eta ados egonik, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko foru diputatuak,

**EBATZI DU**

**Lehenengo.- Onartzea** honako kontratazio espedientea: ***Iturrarango Lorategi Botanikoaren kontserbazio lanak (A05/19-SE/M).*** Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 70.000,00 euro da gehi 14.700,00 euro %21eko BEZari dagokiona, guztira 84.700,00 euro, eta gauzatzeko gehienezko epea, berriz, 2020ko abenduaren 31 arte da.

**Bigarren**.- Onartzea kontratua prestatzeko eta aurrera eramateko oinarritzat erabiliko diren Ezaugarri Teknikoen eta Bal-dintza Administratibo Partikularren Agiriak.

**Hirugarrena.-** Espedientea aldez aurretik izapidetzen dela kontuan izanik, kontratuaren esleipena Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2020ko Aurrekontu Orokorrean kreditu nahiko kreditu nahiko eta egokia egotearen eten baldintzapean geratzen da.

**Laugarren.-** Baimentzea 84.700,00 euro kontratuaren 2020an egikarituko diren lanetarako 1.0250.510.227.99.01.2020 kontu sailaren kargura aurrekontuko unerik egokienean.

**Bosgarren**.- Kontratua esleitzeko prozedura irekiari hasiera ematea, kontratatzailearen profilean dagokion iragarkia argitaratuz.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesatuek, zuzenean, Donostiako administrazioarekiko auzietarako epaitegietan. Horretarako, BI HILABETEKO epea dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

En el presupuesto correspondiente al ejercicio 2020 está prevista consignación presupuestaria por importe de 84.700,00 euros en la partida 1.0250.510.227.99.01.2020.

Visto todo ello, y considerado conforme, este Diputado Foral del departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural,

**RESUELVE**

**Primero.- Aprobar** el expediente de contratación de ***Servicios de conservación del jardín botánico de Iturraran (A05/19-SE/M),*** con un precio base de licitación de 70.000,00 euros más 14.700,00 euros de 21% de IVA, en total 84.700,00 euros y un plazo máximo de ejecución hasta el 31 de diciembre de 2020.

**Segundo**.- Aprobar los Pliegos de Prescripciones Técnicas y Cláusulas Administrativas Particulares que servirán de base para la preparación y desarrollo del contrato.

**Tercero.-** Teniendo en cuenta el carácter de tramitación anticipada del expediente, la adjudicación del contrato se somete a la condición suspensiva de existencia de crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el ejercicio 2020.

**Cuarto.-** Autorizar un importe de 84.700,00 euros para los servicios previstos a ejecutar durante 2020 en la partida 1.0250.510.227.99.01.2020 en el momento presupuestario oportuno.

**Quinto**.- Disponer la apertura del procedimiento abierto para la adjudicación del contrato, mediante el preceptivo anuncio a publicar en el perfil del contratante.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Los interesados podrán interponer directamente contra ella RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia/San Sebastián, en el plazo de DOS MESES, a partir del día siguiente al de su notificación.

Hala ere, aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko foru diputatu honi HILABETEKO epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezezpena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante este Diputado Foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

FORU DIPUTATUAK,

Sin./ Imanol Lasa Zeberio